



# TORTURA ESTATU ESPAINIARREAN: 2015EKO TXOSTENA

Hamabigarren urtez jarraian, Estatu espainiarrean ezagutu diren zaintzapean gertatutako tortura, tratu txar eta heriotza kasuei buruzko urteko txostena aurkeztu du Torturaren Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundeak (TPSK).<sup>1</sup> Txosten honetan, aurreko txostenetako irizpide berak erabili dira Estatu espainiarrean gertatzen den torturaren praktikaren garapenaren berri emateko. NBEren Konbentzioaren definizioaren barnean sartzen diren salaketak aurkezten ditugu lan honetan:

*"Torturatzat hartuko da pertsona bati min edo sufrimendu larriak nahita eragitea, izan fisikoak zein mentalak, harengandik edo hirugarren batengandik informazioa edo aitortza bat izateko, egin duenedo egin duela susmatzen den egintza batengatik zigortzea, edo pertsona hori edo beste batzuk intimidatzea edo hertsatzea, edozein diskriminazio-motatan oinarritutako edozein arrazorengatik, min horiek funtzionario publiko batek edo beste pertsona batek eragiten baditu bere egiteko publikoen jardunean, izan bere ekimenez edo berak hala eskatuta".*

Torturaren eta bestelako tratu edo zehapen krudel, anker edo iraingarrien aurkako NBEen Konbentzioa. NBEen Plenarioak onartua 1984ko abenduaren 10ean. Estatu espainiarrak berretsia, 1987ko urrian ezarri zen indarrean Espainian.-


Aurtengo txostenean jasotzen denez, 232 pertsonak nozitu zituzten erasoak, torturak edo tratu txarrak, eta, orotara, 128 egoera gertatu ziren.

Jasotako egoerak	Eragindako pertsonak
128	232

Funtzionarioen zaintzapean (polizia-etxeak, kuartelak, kartzelak edo askatasunaz gabetzeko zentroak) zeuden pertsonak egin zitzaizkien eraso horiek, edo poliziaren esku-hartzea tarteko zela (manifestazioen errepresioa, etab.). Zenbaki hauek ez dute bat egingo torturagatik edo tratu txarengatik irekitako auzi penalekin, kasu edo egoera bakarrak auzi judizial bat edo gehiago eragin baitezake. Aurreko urteetan legez, ez dira aintzat hartu 2015. urtean ezagutu diren tortura edo tratu txarren salaketa guztiak: txostenetik kanpo gelditu dira zenbait, hainbat arrazoi tarteko: eragindako pertsonak hala eskaturik, beste batzuk jasotako informazio eskasiarengatik edo ez osoki egiaztatuak izateagatik. Era berean, azpimarratu behar da Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek (FCSE) edo Espetxe Erakundeetako Funtzionarioek (FIIPP) egindako tortura edo eraso kasu asko ez direla inoiz salatzen, ez justizia epaitegien aurrean, ez bestelakoen aurrean, publikoa zein pribatua izan, batez ere migratzaile edo emakume presoen kolektiboak edo kalteberatasun sozialekoak diren bestelako batzuei (etxegabeak, kasu) egindakoak.

**2004. eta 2015. urteen artean TPSK-k aurkeztutako 11 txostenetan, 3.261 egoerek 7.812 pertsonari eragin zien.**

<sup>1</sup> Txostenak hemen ikusgai <http://www.prevenciontortura.org>



Aurreko koadroak erakusten digu nola egiten duten salaketen gora eta behera, baina joera aipagarriarik ez da ikusten. Gauza bera gertatzen da tortura edo tratu txar egoerekin, baina aldagarritasun gutxiagorekin. Horregatik, datu horiek ezkututzen dituzten egoerei buruz hausnartu beharra dago, eta analisi xehatu batean baloratu beharko dira; hain zuzen ere, horixe egiten da txosten osoan sakonki, 2015. urtean egoerak, eta, batez ere, eragindako pertsonak gutxitu direla baloratzean, bereziki.

Halaber, txosten osoan jasotzen denez, TPSK-k taxututako pertsonen eta erakundeen lurraldekako banaketa ezberdina da, eta, ondorioz, bildutako datuak handiagoak dira ezarpena dugun lurraldeetan, ezarpenik ez dugun lurraldeekin alderatuz. Horregatik azpimarratzen dugu hainbeste hemen aurkeztutako egoerak errealitatearen parte bat baino ez direla, txostenean aipatzen diren hainbat alderdik mugatzen duten parte bat.

### 1.- Datuen banaketa, lurraldeka

Lurraldea	Egoerak		Eragindako p.	
Andaluzia	19	↓	24	↓
Aragoi	2	↓	2	↓
Asturias	4	=	4	↓
Kantabria	0	=	0	=
Castilla La Mancha	1	↓	1	↓
Castilla y León	7	↓	7	↓
Catalunya	17	↓	18	↓
Ceuta	5	↑	18	↓
Euskal Herria	9		54	
-EAE	5	↓	48	↑
-Nafarroa	4		6	
Extremadura	2	=	3	=
Galiza	12	=	23	↑
Illes Balears	8	↑	9	↑
Kanariar Uharteak	5	↓	5	↓
Errioxa	0	↓	0	↓
Madril	13	↓	28	↓
Melilla	9	↓	13	↓
Murtzia	2	↓	5	↓
País Valencià	13	↓	18	↓
OROTARA	128	↓	232	↓

↓ Gutxitzea 2014arekiko

↑ Igoera 2014arekiko

= 2014an bezala

Aurkeztu dugun lurraldekako banaketa hau ez da argigarria torturaren praktikaren intzidentzia erreala zein den jakiteko, izan ere, ez da adierazten nazio bakoitzaren biztanle kopurua zein den, eta, ondorioz, zein den praktika honen intzidentzia erreala lurralde bakoitzean biztanleko kasu-kopuruaren arabera. Beste analisi hauek eta probintziakako egoera eta salaketa xehakatuak txosten osoan kontsulta daitezke. Gainera, hegoaldeko mugatik jasotako salaketa-kopuru handia ikusirik (Ceuta eta Melilla, bereziki), geografia-eremu horretako berariazko egoeraren analisia ere sartzen da txostenean, azken urtean TPSKrentzat kezkarri gertatu diren beste esparru batzuk aztertzeke bestelako artikulu monografiko batzuekin batera: zigor-arloko zuzenbidea erabiltzea helburu politikoetarako, espetxe-isolamendua (Barne Ministerioak kudeatutako espetxeetan zein Generalitat de Catalunyaen mendekoetan), osasunerako eskubidea espetxean, lagundu-gabeko adingabeek jasotako tratua, eta Ceuta eta Melillako hesien egoera.

## 2.- Banaketa, pertsona erasotuen zirkunstantzien arabera:

Erasotuen zirkunstantziak <sup>2</sup>	Egoerak		Pertsonak	
Atxiloketa inkomunikatuak	0	↓	0	↓
Mobilizazio sozialak	19	↓	89	↓
Migratzaileak	28	↓	50	↓
Presoak	36	=	37	↓
Adingabeak	10	↑	19	↑
Bestelako egoerak	44	↓	58	↓



Gutxitzea 2014arekiko



Igoera 2014arekiko

= 2014an bezala

Laugarren urtez jarraian, atxiloaldi inkomunikatuetan gertaturiko torturen salaketek behera egin dute nabarmen. Hala ere, nahiz eta zenbaki absolutuetan behera egin, badaude atxiloaldi inkomunikatuetan gertatzen diren tratu txarregatik edo isekengatik salaketak<sup>3</sup>, eta horrek, berriz ere, atxiloaldi horren abolizioa eskatzera garamatza. Bigarrenik, ikusten dugu nabarmen egin duela behera gisa honetako erasoak jasaten dituzten migratzaileen kopuruak aurreko urteko txostenarekin alderatuz. Eta hirugarrenik eta azkenik, ohartarazi nahi dugu behera egin dutela nabarmen mobilizazio sozialengatik edo horietan gertatutako erasoengatik aurkeztutako salaketek aurreko urtearekiko.

Gutxitze horien arrazoiak asko eta askotarikoak dira, eta txosten osoan jasoak daude. Baina, azpimarratu nahi dugu zenbaki horiek azaltzeko oso faktore garrantzitsuak direla honako hauek: migratzaileekiko biolentziaren externalizazioa, mobilizazioen gutxitzea gizarte-mobilizazioetan parte hartzeagatik erasotutako pertsonen kasuan, eta, horiei erantsita, salatzeke beldurra eta salaketa judizialak kasu guztietan alferrikakoak direla uste izatea.

## 3. Salaketak, 2014an salatutako funtzionarioen arabera

<sup>2</sup> Pertsona bera bi kategoriatan badago aldi berean (adingabea/migratzailea, migratzailea/mobilizazio soziala, etab.), txostenean jasotako persona-kopurua baino handiagoa da kategoria bakoitzeko eragindako pertsonen batura, horregatik ez da aurkezten "orotara" atala.

<sup>3</sup> 57 salaketa 2010ean, 18 salaketa 2011n, 3 salaketa 2012an, 3 salaketa 2013an eta salaketa 1 2014.

Kidego erasotzailea <sup>4</sup>	Egoerak		Pertsonak	
Polizia Nazionala	38	↓	67	↓
Guardia Zibila	18	=	34	↓
Polizia autonomikoak	9	↓	52	↓
-Ertzaintza	4	↓	47	↑
-Mossos d'Esquadra	5	↓	5	↓
Tokiko poliziak	23	↓	36	↓
Espetxe-funtzionarioak	36	↑	37	↓
Adingabeen zentroak	3	↑	3	↑
Bestelakoak (CETI)	1	↑	1	↑

↓ Gutxitzea 2014arekiko    ↑ Igoera 2014arekiko    = 2014an bezala

Mobilizazio sozialei eta migratzaileei buruz jardutean ikusiriko egoera berresten du koadro honek: egoerak eta eragindako pertsonak gutxiago dira, oro har. Aurreko urteetako txostenekiko berrikuntza bakarra da “bestelakoak” atala gehitu izana. Hor jasotzen dira Behin-behineko Egonaldietarako Etorkeinenzako Zentroetako segurtasuneko langileen aurkako salaketak, zeinek autoritate publiko bezala jarduten baitute, eta, nahiz eta segurtasun pribatukoak izan, autoritate publiko gisa jarduten dute, eta Estatuko Segurtasun Indar gisa hartzen dira.

Taula honetaz gain, kidegoen araberrako salaketen lurralde-banaketa erakusten duten beste batzuk aurkezten dira txosten osoan, eta lurralde bakoitzean polizia autonomikoek jasotako salaketen intzidentzia erreala ikustea ahalbidetzen du horrek, baita polizia bakoitzak duen eskumenaren arabera salaketek duten intzidentzia hobeto ebaluatzea ere.

Aurtengo txostenean, tortura, lesio, integritatearen aurkako delitu, tratu txar eta abarreatatik emandako epaien bilduma bat ere sartu dugu lehenengoz. Orotara, 95 epai ezagutu ditugu, horietatik 43tan kondena ezarri zen, eta 52tan absoluzioa eman. Orotara, **2015. urtean, 68 funtzionario kondenatu zituzten Estatu espainiarrean, tortura, tratu txar, lesio edo pertsonen integritatearen aurkako atentatuak egiteagatik euren jarduean.**

### Zaintzapean gertaturiko heriotzak Estatu espainiarrean:

**2015. urtean, zaintzapean zeuden 30 pertsonaren heriotzaren berri izan genuen**, hain zuzen, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek (FCSE) edo espazio publikoen zaintzako bestelako langileek eraginak, edo poliziaren esku-hartzeetako zuzeneko jarduketaren ondoriozkoak (adibidez, haien tiroen ondorioz). Torturaren Prebentziorako Koordinakundean (TPSK) ditugun datuen arabera, **2001eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra, gisa horretan geratutako 616 heriotzaren berri izan dugu zuzenean**, eta nahiz eta ohartzen garen horietariko askok ez dakartela erantzuki penalik eta, areago, zenbait heriotza istripu “saihestezinen” ondorioz gertatu direla, uste dugu beste batzuk utzikeriagatik, zaintzapeko pertsonen osasunerako eta integritate fisikorako eskubidea zaintzeko garaian izandako akatsengatik edo zaintza horren baldintza higieniko-sanitarioengatik gertatu direla, horregatik guztiagatik egiten dugu galdera: noiz eta nola emango zaie amaiera egoera horiei?

Heriotzen bi talde nagusi bereizi ditugu gure txostenean: askatasungabetzearen ondorioz gertatuak (24 pertsona) eta kalean gertatuak (6 pertsona); azken atal honetan sartzen dira Ceuta eta Melillako hesietan eta itsasoan gertatuak, baldin eta Estatu epainiarreko Segurtasun Indarren esku-hartzearen ondorio badira heriotzak. Zaintza-kidegoa heriotza gertatzean, honela banatzen dira 2015eko datuak:

<sup>4</sup> Zenbait presok salatu zuten Espainiako Poliziako (CNP) edo Guardia Zibileko agenteek erasotu zituztela

## Zaintzapean gertatutako heriotzak 2015ean

Heriotzak	
Espetxe-funtzionarioak	17
Espainiako Polizia (CNP)	6
Guardia Zibila	2
Tokiko polizia	2
Polizia autonomikoak	3
Adingabeen zentroetako funtzionarioak	1
<b>OROTARA</b>	<b>30</b>

Azken urteetan zaintzapean gertatutako heriotzak direla-eta aurkeztutako zigor penal edo zibilen demandei erantzunez emandako epaien bilduma bat ere sartu dugu txosten osoan.

Gainerako txosten guztiak bezala, 2015eko txosten osoa, laburpen honekin batera, eskuragarri izango dira gure web-orrian (<http://www.prevenciontortura.org/>), berau aurkezten den egunetik aurrera.

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an.

### Hauek osatzen dute TPSK:

ACAT (Acció dels Cristians per l'Abolició de la Tortura) / Alerta Solidaria / APDH Andalucía / Asociación para la Defensa de los Derechos de la Infancia / Asociación Apoyo / Asociación Concepción Arenal / Asociación Contra la Tortura / Asociación Libre de Abogados / Asociación Libre de Abogados de Zaragoza / Associação Contra a Exclusão pelo Desenvolvimento / Associació Memoria contra la Tortura / Associació Catalana per a la Defensa dels Drets Humans / Behatokia (Observatorio Vasco de Derechos Humanos - Euskal Herriko Giza / Eskubideen) / CAES (Centro de Asesoría y Estudios Sociales) / Campaña por el cierre de los CIE's / Centro de Documentación Contra la Tortura / Comissió de Defensa del Il.lustre Col.legi d'Advocats Barcelona / Comissió de Defensa del il.lustre Col.legi d'Advocats de Girona / Comisión de Derechos Humanos del Ilustre Colegio de Abogados de Baleares / Comisión Legal Sol / Comité Anti-Sida de Lugo / Coordinadora Contra la Marginación de Cornellá / Coordinadora de Barrios / Coordinadora Estatal de Solidaridad con las Personas Presas / Esculca (Observatorio para a Defensa dos Direitos e Liberdades) / Eskubieak (Eskubideak Euskal Abokatuen Elkarte) / Etxerat! (Euskal Errepresaliatu Politikoen Elkarte) / Exil / Federación de Asociaciones de Loita contra a Droga / Federación Enlace / Grupo de Acción Comunitaria (CAC) / Grupo 17 de Marzo (Sociedad Andaluza de Juristas para la Defensa de los Derechos Humanos) / Independientes / Iridia. Servicio de Atención y Denuncia ante situaciones de Violencia Institucional / Jaiki-Hadi / Justicia y Pau / Movimento polos Dereitos Civis / Observatori Sistema Penal y DD. HH. / Oteando (Observatorio para la defensa de los derechos y las libertades) / PreSOS Galiza / Rescat / Salhaketa Bizkaia / Salhaketa Gasteiz / Salhaketa Nafarroa / SOS Racisme Catalunya / Subcomisión Penitenciaria del CGAE / Torturaren Aurkako Taldea / Xustiza e Sociedade de Galicia